

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa. Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Planaren baitan nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen oinarri arautzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Planaren 2015-2020 plangintzaldiaren baitan nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak (Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuak aldatuak), aldatzea, bai eta laguntza lerro horren 2018rako deialdia ere.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren bidez, M06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" neurria bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Planaren baitan, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako muga barruan, bai eta laguntza lerro horren 2016rako deialdia ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatzen dira laguntza horien oinarri arautetako batzuk eta 2017rako haien deialdia egiten da.

2017ko maiatzaren 30ean, Europako Batzordeak, C(2017) 3859 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren bigarren aldaketa onartu zuen. Aldaketa horrek zati batean laguntza lerro horri eragiten dio eta, beraz, ezinbestekoa da haien oinarri arauak aldaketa horietara egokitzea. Halaber, zenbait alde zehaztu eta argitu behar da, aurreko deialdietan izandako esperientzian oinarrituta.

Bestalde, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2018ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea M06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" neurria bideratutako laguntzen oinarri arautzaileetan, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezarritakoetan (Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuak aldatuak), honako aldaketa hauek egitea:

Onuradunen betekizunak arautzen dituen 4. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratzen da:

4. artikulua. Onuradunen betekizunak

Nekazari gazteak diren pertsona fisikoak izan ahalko dira laguntza honen onuradunak, laguntzarako eskabidearekin batera aurkezten duten enpresa planean instalatuko diren ustia-tegiak 5. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko ditu, seigarren artikuluan ezarritako konpromisoak lortzen badituzte eta jarraian adierazi diren betekizunak betetzen badira:

4.1 Hemezortzi urte beteta izatea eta berrogeita bat urte bete gabe izatea.

Zerga egoitza eta egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekikoak egunean izatea.

Instalazio prozesua onartzea Gaztenek 2020 prozeduran aurreikusitako baldintzen arabera.

Dekretu honen 7. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituen enpresa plan bat aurkeztea.

Hogeita lau hilabeteko epean laguntza eskabidea aurkeztea, nekazaritza ustiategi bateko titular gisa lehen aldiz instalatzen den unetik zenbatzen hasita.

Ondorio horietarako, ez da lehen aldiko instalazio gisa joko neurriaren hautagarritasun baldintzak betetz, laguntza eskatu baino 24 hilabete lehenago ustiategi baten titulartasun lortu badute, baina bertan aurreikusitako enpresa plana ez bada abiarazi.

Kasu horretan, ez ustiategiak ez gazte titularrak ez du hobekuntza planetarako edo lehen instalaziorako inongo dirulaguntzarik jasota eduki behar laguntza hau eskatu aurretik, salbu eta ustiategiak erakunde publikoren batek sustatutako enpresen mintegien esparruan inskribatuta badaude.

4.7 Prestakuntza profesional eta gaikuntza egokia izatea:

Nekazari gazteak gaitasun profesional nahikoa duela ulertuko da kasu hauetakoren bat betetzen badu:

Nekazaritza arloko titulazio akademikoa izatea, gutxienez bigarren zikloko lanbide heziketa mailakoa edo erdi mailako edo goi mailako prestakuntza ziklo bat izatea.

Aurrekoa betetzen ez bada, eskabidearen dataren aurretik nekazaritzaren sektorean besteren kontura lanaldi osoko nekazaritza jardunean bi urte baino gehiagoko esperientzia egiaztatzea. Gizarte Segurantzak emandako agiri baten bidez frogatu beharko da betekizun hori.

Aurreko ataletan ezarritakoa ez bada betetzen, nekazaritza arloan sartzeko ikastaro trinko batean edo nekazaritza arloko etengabeko prestakuntzako ikastaroetan parte hartzea egiaztatzea, gutxienez 150 irakaskuntza orduko iraupendunak, Gaztenek prozeduran jasotako laguntzan zehar egokituz jotako prestakuntza ibilbidearekin bat etorri.

Gehienez 36 hilabeteko epea eman ahalko da, laguntzen ebazpenaren datatik, gazteak prestakuntza prozesua buka dezan.

Edonola ere, prestakuntza horrek bat etorri beharko du gazteak aurkeztu beharko duen enpresa plan eta proiektuaren xedearekin, eta Gaztenek 2020 Planaren Balorazio Batzordearen onospena jaso beharko du.

Nekazaritzako ustiategien betekizunak arautzen dituen 5. artikulua azken paragrafoa aldatzea. Honela idatzita geratzen da:

Nekazari gaztea instalatuko den nekazaritza ustiategiak ezin du izan aurreko beste ustiategi bat banatzearen emaitza, biak aldi berean existituz, ustiategi zaharreko titularrak gaztearekin familia harremana baldin badauka odolkidetasunagatik edo lehen mailako loturagatik, edo ezkontidea baldin bada, titular horrek nekazaritza edo abeltzaintza jarduna bertan behera uzten badu salbu. Halaber, gaztearen ustiategiak ez du edukiko ez lursailik ez abererik, baldin eta aurreko paragrafoan azaldutako gaztearekiko ahaidetasun maila duten titularren ustiategietan egom badira dirulaguntza eskatu aurreko azken 5 urteetan.

Pertsona onuradunaren konpromiso eta betebeharrak zehatzak finkatzen dituen 6. artikuluko 1.1 idatz zatia eta 2.8 idatz zatiko bigarren gidoia aldatzea. Honela idatzita geratzen dira:

6.1.1. Gaztenek 2020 prozeduraren arabera, laguntza emateko ebazpena ematen denetik hasita 9 hilabeteko epean, gehienez ere, enpresa plana abian jartzea. Abiatze hura egiaztatu beharko da prozedura horretan jasotzen den gaztearen tutorearen egiaztariaren bidez.

6.2.8 Ustiatégian hasierako NLU bati dagokion lan bolumena sortzea, honako zehaztasun hauekin:

– Gaztea ustiatégian titular bakarra bada, eta hasierako NLU bateko lan bolumena edo handiagoa lortzen badu, ez du besterik sortu behar.

– Gaztea lehendik dagoen ustiatégi elkartu batean sartzen bada bertako bazkide langile bat edo soldatapeko langile bat ordezkatzeko, eta ustiatégiak ordurako bazkide/langile kopurua baino lan bolumen (lehen sektoreko NLUak) handiagoa badu, ez du nahitaez NLUrik sortu behar. Ordezkatutako bazkide langileak edo soldatapeko langileak gutxienez 2 urte eginak izan behar ditu jarraian ustiatégian lanean, laguntza eskatu aurretik.

Gaztea figura juridiko berriren bat hartu duen ustiatégi batean kokatzen bada, eta hura titulartasun aldaketa batetik eratorria bada, eta ez ustiatégi berri baten sorreratik, orduan gaztearen sarrera ustiatégi elkartu batean sartzen den gaztearen kasuaren antzekoa izango da.

1.4. Espedienteak aukeratzeko irizpideak finkatzen dituen 10. artikuluko 1.a) idatz zatia aldatzea. Honela idatzita geratzen da:

a) Enpresa planean aurreikusitako inbertsioak eta gastuak, Landa Garapenerako Planeko M04.1 neurriaren eta M04.2 neurriaren (lurrak erosi, eskubideak erosi, abereak erosi, lurrak alokatu...) bitartez lagundu ezin bada: 0 eta 20 puntu bitartean.

Gastu baremagarriak laguntzarako eskaera aurkezten den egunetik aurrera bereganatutakoak edo egindakoak izango dira.

Gastu eta inbertsio horiek baloratzeko EAEko batez besteko prezio ofizial estatistikoak hartuko dira erreferentzia gisa.

Enpresa plan berbera partekatzen duten pertsona batek baino gehiagok sustatutako proiektu kolektiboen kasuan, zenbateko baremagarriak eta puntuak esleipenak planean aurreikusitakoari jarraiki lanean hasiko den pertsona gazte bakoitzaren arabera izango dira. Hau da, ateratzen dena zatituz irizpide honen arabera jasotako eta enpresa planean aurreikusitako diru sarrera bolumena eta gazte partaide kopurua, bakoitzak proiektuan duen partaidetza portzentaiaren arabera. Gainerako irizpideetarako, puntuak sartzen den gazte bakoitzari aplikatuko zaizkio osorik.

Inbertsio/gastuaren gutxienezko zenbateko baremagarria 20.000,00 euro izango da, eta gehienekoa 100.000,00 euro, planeko guztizko inbertsioa handiagoa izan arren. Puntuak esleipena inbertsioaren bolumenaren arabera izango da, proportzionalki, honela:

20.000,00 eurotan edo gutxiagotan baloratutako inbertsioei zero puntu emango zaie.

20.000,00 euro baino gehiagotik 100.000,00 eurora bitarteko (zenbateko hori barne) inbertsioen kasuan, eman beharreko puntuak kalkulua egiteko baloratutako zenbatekoari 20.000,00 euro kendu eta emaitza bider 0,00025 egin behar da.

Emaitza zenbaki dezimala bada, zenbaki oso batera biribilduko da. Bi hamarren hartuko dira kontuan.

100.000,00 eurotan edo zenbateko handiagoan baloratutako inbertsioei 20 puntu emango zaizkie.

1.5 Laguntzaren zenbatekoak finkatzen dituen 11. artikuluan 4. idatz zatia aldatzea. Honela idatzita geratzen da:

11.4 Espedienteak aukeratzeko 10. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera emango dira laguntzaren zenbatekoak, honi jarraiki:

0-1 puntu bitartean: 20.000,00 euro.

1-40 puntu bitartean, 20.000,00 euroei 1.000,00 euro gehituko zaie lortutako puntu bakoitzeko.

> 40 puntu: 70.000,00 euro, kasu guztietarako.

1.6 Espedienteen ebazpena eta izapidetzea arautzen duen 17. artikulua 1. idatz zatia aldatzea. Honela idatzita geratzen da:

17.1 Espedienteen ebazpen proposamena onartutakoan, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean den araudiaren arabera.

Baldin ez badago kreditu nahikorik laguntzak emateko betekizunak betetzen dituzten espediente guztiei, honela jokatuko da:

Lehenengo ebazpena emango da, eta bertan sartuko dira ezezkoa jaso duten espedienteak eta baiezkoa jaso duten espedienteak, gordetako kreditua agortu arte, aukeratze irizpideak ezarri ondoren lortutako lehentasun ordenari jarraituz. Baiezkoa jaso duten gainerako espedienteak erreserban geratuko dira bigarren ebazpena eman arte, zeina beranduenik ere deialdia egin den urteko azken hiruhilekoan emango baita; ebazpen horrek deialdia behin betiko ebatziko du, eta laguntza esleituko die aurrerago ezarritako lehentasun ordenaren arabera hala dagokien espedientei baldin kreditua gehitu bada, eta ukatu egingo zaie laguntza, krediturik ez badago.

Emandako ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, indarrean den araudiaren arabera. Dena den, aukerako berraztertze errekurtsioa ere jarri ahal izango da.

1.7 Ustiategiaren marjina gordinaren definizioa aldatzea, I. eranskinean ageri dena. Honela idatzita geratzen da:

“Ustiategiaren marjina gordina”: ustiategi bakoitzeko, jarduera baten marjina gordina kalkulatzeko ondoko hauek biderkatzen dira: haren dimentsio fisikoa, hektareak edo abelburuak (kasuaren arabera), batetik, eta marjina gordin estandar egokia edo koefiziente egokia, bestetik. Ustiategiko jarduera guztien marjina gordinen batura ustiategiaren marjina gordin osoa da.

Marjina gordin teorikoa kalkulatzeko, Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasuneko Sailaren 2016ko martxoaren 31ko Aginduan xedatutakoa bete behar da. Bertan hainbat laboreren marjina gordinak, nekazaritzako lan unitateak zehazteko modulu objektiboak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiategietako gastu finkoen koefizienteak ezartzen dira.

Ustiategiaren marjina gordin erreala jasotako dirusarreraren datuen arabera zehaztu ahalko da, nekazaritzako ekoizpen jardueren fakturen bitartez dokumentaturik; horietatik hazien, fito-sanitarioen, ongarrien, labore eta pentsuen aseguruaren eta berokuntzaren, bazkaren, albaitari gastuen, eta oheen zuzeneko gastuak eta kasuan kasuko ganaduaren zuzeneko beste gastu batzuk kenduko dira.

Kontratutako edo bertako lanekuaren gastuak eta makinariaren edo kanpo lanen kontratazioa ez dira inola ere aintzat hartuko.

Bigarrena. Dirulaguntza lerro honetarako deialdia onartzea 2018. urterako (LGNEFek jartzen du dirulaguntzen finantzaketaren ehuneko 80), honako ezaugarri hauekin:

Eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua: 35 egun naturaleko epean, foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik, ustiategiaren kokalekuko Nekazaritzako Eskualde Bulegoan edo Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuan. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa kaltetu gabe. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta, eskabideaz gainera, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren II. eranskinean zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dira.

Hautapen irizpideak: deialdi honi lotutako laguntzak emateko espedienteen hautapen irizpideak izango dira oinarri arautzaileen 10. artikulua foru dekretu honen bidez onartutako testuan ezarritakoak.

Laguntzen zenbatekoa: 2018ko deialdiari lotutako laguntzen zenbatekoak oinarri arautzaileen 11. artikulua ezarritakoak izango dira, foru dekretu honek onartutako idazkeran.

Kreditua gordetzea: Arabako Foru Aldundiaren 2018. urterako gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.770.00.05 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" partidaren kargura, guztira, 1.996.666,00 euroko zenbatekoa, urteka honela banatuta:

2018: 596.666,00 euro (Zorpekinaren erref.: 18.1.18.105.886/000).

2019: 300.000,00 euro (Zorpekinaren erref.: 18.3.19.105.009/000).

2020: 300.000,00 euro (Zorpekinaren erref.: 18.3.20.105.002/000).

2021: 300.000,00 euro (Zorpekinaren erref.: 18.3.21.105.001/000).

2022: 500.000,00 euro (Zorpekinaren erref.: 18.3.22.105.001/000).

Esandako kredituak zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 21.2.b) artikuluan ezarritako mugen barruan, hasieran gordetako kredituaren ehuneko 100eraino, baita ere aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidan kreditu gehikuntzarik geratuz gero, emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditu hori eskabide horietan erabiliko da, dirulaguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraiki.

Laugarrena. Deialdi honetan, gainera, honako hauek ere laguntzaren onuradun izan ahal izango dira:

– Eskaera aurkeztu baino 24 hilabete lehenagotik ustiategi bateko titularrak izan diren pertsona gazteak, ustiategiaren neurria 0,10 NLU baino txikiagoa baldin bada.

– Nekazaritzako enpresen mintegi batetik datozen gazteak, baldin eta mintegi hori erakunde publiko sustatzaile batek legez eratua bada. Mintegian egon diren bitartean bertan ustiatagia eduki duten gazteak ere laguntzaren onuradun izan ahal izango dira. Pertsona horiek mintegian dauden bitartean aurkeztu beharko dute laguntza eskaera, egonaldiko azken urtean, luzeen jota. Kasu horretan, ustiategiak edo gazte titularrak hobekuntza planetarako dirulaguntzak jasota eduki ahalko dute laguntza hau eskatu aurretik, enpresen mintegien esparruko ustiategietan bakar-bakarrak.

Egoera horretan dauden gazte guztiek laguntza eskaera aurkeztu beharko dute, eta laguntza honen oinarri arautzaileetan ezarritako konpromisoak eta gainerako betekizun guztiak bete beharko dituzte.

Atal honen babespean emandako laguntzak estatu mailako laguntza gisa hartuko dira, eta Europako Erkidegoaren 2014ko ekainaren 25eko 702/2014 Erregelamenduaren esparruan emango dira; horren bitartez nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan laguntzen zenbait kategoria barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Laguntza horien finantzaketa Arabako Foru Aldundiaren funtsekin egingo da; espedienteak aipatutako erregelamenduaren 18. artikuluan eta dekretu honetako laguntzen oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

Bosgarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Seigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE